



**BELTRAN, Juan M<sup>a</sup>**

**Txalaparta**

Donostia: Editorial Nerea, 2009

222 or. : ir. ; 25 cm. + 1 CD +

1 DVD

ISBN: 978-84-96431-48-5

Orain dela hamabots urte nik txalaparta izeneko liburua atera nuen. Geroztik ikerlariek ikerketa batzu eta artikuluak atera dituzte baina gehien bat Juan Mari Beltranek antolatzen duen txalaparta festaren inguruan egin eta argitaratu dituzte. Juan Mari horrelako materialak eta gainera bere iritziak zabaltzea liburu baten bitartez oso berria ona da, bera oso partaide zuzena izan delako txalapartaren garapenean eta berak bildutako materialak oso onak direlako.

Liburua hiru ataletan banatu ditu, eta gainera Cda eta Dvda atera ditu. Atalez atalez sartu aurretik, liburuan agertzen den aipamena jarri nahi dut:

1968 an Usurbilego festetan geratu zen... txosna inguruan jendez beterik, eta ez dakit nola edo nork proposaturik, bat batean esku bakoitzean zerbeza botila bana harturik, Josean Artze eta biok zakarra biltzeko zegoen bidoi huts baten kontra txalaparta jotzen hasi ginen. Hots hura, musika hura magikoa izan zen.

Beraz, erritmoa egiteko eta berez barrutik ateratzen dena txalaparta da. Honelakoak eta beste bizipen gehiago Juan Mari zuzenean bizi izan ditu. Hortaz, hau eta beste pasadi-zoak aipatzeak abiapuntu eta esperientzia bereziak ematen dizkigu, txalaparta zer den eta zelan garatu den ulertzeko.

### **1. Lan erritmoetatik musikara. Txalapartaren aldaerak hemen eta munduan**

Ikerketak hasi zirenean, bi bikote geratzen ziren, eta txalaparta jotzeko ohitura oso murriztuta zegoen. Beraz, ikerketa gehienak konparaketaren bitartez edo aipamen txikien bitartez egituratu behar ditugu. Juan Mari Beltranek txalaparta zertan izan zen eta zelan izan zitekeen, munduko tresnen barruan bere erabilerak aztertu ditu. Lan mundutik hasita musika barruan kokatu arte aztertzen du, eta txalapartaren ezaugarrien bitartez bere iritziak eta ondorioak aipatzen ditu.

Txalaparta zaharra ohol bat bi zutoki gainean kokatuta ezagutu genuen. Ohol bakarren gainean txakun (bi kolpez txakun onomatopeia eginez) eta herrena aldikatuta bi jolek jotzen zituzten.

Atzera eginez, lehengo txalapartaren erabilera horrela kokatzen du:

Erritmo makilak tresnarik simpleenatakoak dira, baina perkusioaren arloan garrantzitsuenak zalantzarik gabe; aintzinako gizarteetan sonoritate beti berrien bilaketa eragin zuela esan daiteke, horrek soinua sortzeko modu eta tresna berriak berez sortu zituelarik.

Txalapartaren azterketa beste tresna batzuekin lotzen ditu eta kirikoketa eta toberak azterketa berdinean sartzen ditu. Azterketa zabaltzen da eta bi tresnak sartzeak esparru zabalagoa ematen digu. Beraz txalaparta eta hauek bere ustez garapen berdina eta denbora eta kokapenean erabilpen antzekoak izan dituzte.

Tresna hauek lanean nekea kentzeko edo taldea antolatzeko zelan erabiltzen ziren aztertzen ditu. Txalapartaren bi joleen arteko aldikapena burdina lantzeko bi langileen arteko aldikapenarekin lotzen du. Garia lantzeko eta lan esparru desberdinetan azterketa eta konparaketak egiten ditu.

Lana joko bihurtzen da eta musika, hirurak lotzen dira eta honalako tresnetan erabilpenak nahasten dira. Munduan zehar beste tresnekiko konparaketak eginez, atala oso zabala eta interesgarria betetzen dituzte.

Bukatzeko munduan beste adibideak eta erabilpenak aipatzen ditu.

## 2. Txalaparta 1960ko hamarkada arte

Bigarren atalean materialak eta dokumentuak pilatzen dira, eta bertan bera barruan egonda, berak bildutako materiala zabala da. Dokumentuen bidez 1882 arte heltzen da txalapartaren lehenengo aipamena topatzeko. Dokumentu eta aipamen desberdinek esparru oso zabala eta interesgarria betetzen dituzte.

Txalapartaren inguruan ikerketa gutxi egon dira 60ko hamarkada arte. Denak aipamen txikiak dira, eta oro har deskriptiboak. Juan Marik ikuspegi zabalagoa edukitzeko toberak ere aipatzen ditu.

Biak kontuan hartuta, toberaren inguruan lehenengo dokumentuan 1688an aipatzen da. Lehenengo aldiz txalaparta chalaparta bezala idatzita, 1882an Severo Aguirre Miramonen *La fabricación de la sidra en las provincias vascongadas y su mejoramiento* liburuan horrela azaltzen da: "Durante la chalaparta se dan en demostracion de júbilo ciertos gritos o voces particulares a los que los naturales denominan irrintziac".

Beste teoretiaz luzaten da eta ikerketa desberdinak aipatzen ditu, erromatarren garaian txalaparta antzekoa erabiltzen zela erromatarrek isutzeko, agian akelarretan Zugarramurdi edo inguruan txalaparta erabili zuten, baina txalaparta zela frogatzeko ez daukagu dokumenturik.

Argi dagoena zera da, txalaparta sagardoari antzinatik lotuta dagoela, txalapartari zaharrek sagardo inguruan askotan jotzen zutelako eta aintzinako dokumentuetan. Aguirre Miramonenean, adibidez, agertzen delako.

Beste funtzioak dokumentuen bidez edo bere iritzien bidez azaltzen dira: lana sagardo jaietan, Donibane gauean, zaldia imitatzearen susmoa, eta abar eta abar..

Txalaparta mezuak pasatzeko erabiltzen zirelako berria oso zabala da. Txalapartaren inguruan seguraski erabiliak izan dira, baina Juan Marik azaltzen duenez dauzkagun dokumentuen bidez ez dugu hori frogatzerik.

Toberak aztertuta beste funtzioak agertzen dira batez ere ezkontzetan. Toberetan musika dantza eta hitza ere agertzen ziren.

Hizkuntzan txalapartaren esanahia bilatzen du eta jo hitzaren garrantzia eta beste hizkuntzekiko konparaketa egiten du. Txalaparta eta musika jo-aldian agertzen da euskal kulturaren musika jo egiten da. Txalaparta hitza hiztegi desberdinetan aztertzen du.

Adarra eta kantua eta irrintziak txalapartaren inguruan agertzen dira. Beste tresnekinek ez da lotzen baina Juan Marik honelako tresnekin zelan lotzen den azterketa egiten du. Ahotsa eta txalapartarekiko lotura oso argia da joaldi aurretik onomatopeien bitartez abesten zelako.

Txalaparta herri musikaren barruan kokatzen da eta Brailou etnomusikologo errumaniarrak horretaz esaten duena liburun aipatzen da:

Doinu herrikoak ...benetan abestu edo interpretatzen den unean bakarrik nahi du izatea, eta bere interpretearen borondateagaitik bakarrik bizi da, berak nahi duen moduan. Sor-tzea eta interpretatzea bertan nahasten dira... musika idatzi eta inprimatuak ezagutzen ez duen moduan.

Txalaparta muga horretan zegoen berez ikasita interpretatzea aintzinako ohitura da, idazten hasi zen, eta zabaltzen hasi zen euskal jaietan, euskal festetan, euskal asteetan. Muga horietan txalaparta ezagutu dugu eta Juan Marik aipatzen duenez txalapartaren garrantzia horretan dago.

Atala bukatzeko garai hartan ibiltzen ziren txalapartariak aipatzen dira, hauetatik gero aro berria etorri zen.

### 3. Txalapartaren aro berria

Txalaparta zabaltzen hasi zen, eta bere erabilpenak eta agerpenak gero eta handiagoak izan ziren. Garapena luzea eta zabala izan da, eta atal honetan adibide eta izen asko aipatzen dira. Zuaznabartarrak, Goikoetxeatarrak (60.eko hamarkadan geratzen ziren bi bikoteak), Artze anaiak, Goizialdiko txalapartariak, Beltran anaiak eta beste bikote batzu ehundaka kontzertu eta amaldiak ematen hasi ziren. Ez dok hamairu taldekoek esparru berriak eta beste erabilpenak zabaltzeko garrantzi handia izan zuten. Ikastaro ugari hasi ziren ematen eta eskolak ere sortu ziren. Hemaniko txalaparta eskola 1985-1986 ikasturtean martxan jarri zuten. Bere inguruan urtero txalaparta festa Juan Mari antolatzen hasi zen. Joaldiak idazten hasi ziren eta sortzen zena edo jo zutena idazten eta arautzen hasi zen. Txalaparta zaharra eta berez jotzeko joera aldatzen hasi zen eta garai berrietan hasi zirenek txalaparta beste musika tresna zela usten hasi ziren. Hemaiko txalaparta festan bi munduak lotzeko hasierako lehengo joaldia beti txalapartari zaharrek jotzen zuten, jarraian adibide eta aukera desberdin asko. Beste eskolak eta jotzeko erak sortu ziren eta Bizkaian, Iparraldean eta Araban aukera desberdinak sortu ziren, Hernanin hasi zena aberastuz. Emakumeak bere papera hartzen hasi ziren (lehen bat ere ez zegoen) eta bikote onak eta interesgarriak agertu ziren. Korrikan eta kultur ekitaldi askotan txalaparta toki bat edukitzen hasi zen, baita ere politikan preso ekitaldietan edo ezker abertzalearen ekitaldietan txalaparta askotan agertzen zen. Zinema, konposizioak... ia arlo guztietan txalaparta agertzen da.

Gure tresna zen ohol bakarra 14 oholetan edo gehiago jotzen hasi zen, binarioa zena, poliritmiak 3/8 edo edo...

Euskal kulturaren arlo guztietan eta gizarte leku askotan txalaparta agertzen da edo bere soinua entzuteko aukera dago. Txalapartari zaharrek binarioa edo horren antzekoa egiten zuten, baina ternarioak eta bestelako aukerak hasi ziren sartzen, erritmo mota guztietan jotzeko asmoz. Lehen txakuna edo herrena egiteko bi kolpez edo gutxiagoz jotzen zuten. Gaur egun hiru lau edo gehiago jotzen ditugu jole bakoitzak duen aldian.

Juan Marik egiten duen zerrendan asko falta dira, baina berak esaten duen moduan:

Txalapartari zahar haiek erakutsitako bidea jarraituz, gaur berrituta eta osasuntsua, zaharra eta era berean berria agertzen da. Tradizionala eta era berean berritzailea, txalaparta bizi-bizirik dago.

Txalapartaren aukerak azaltzeko CDa daukagu. Adibide eta joaldi onak txalapartaren aukera desberdin asko entzuteko. Dvdan iritziak eta beste ekarpenak ere biltzen ditu.

Bukatzeko liburuan agertzen den aipamen bat egin nahi dut.

1960ko hamarkadan txalapartarekin hasi ginenok askotan entzun dugu meritu handia dugula txalaparata salbatu genuelako. Niri iruditzen zait gure meritu handia momentu hartan txalapartarekin topo egitea izan zela, eta zorionez txalaparta ezagutzeko, gozatzeko eta bizitzeko aukera paregabea izan genuela.

Meritu handia izan duzenoi eskerrik asko eta ea honelako liburu gehiago eta azterketak dastatzeko aukera daukagun. Txakun txakun...

*Josu Goiri Iturrizar*